

2023KO HAUTESKUNDEAK: UDAL-PROPOSAMENAK

Greenpeaceren eskaerak udalerrri txikiak, ertainak eta handiak iraunkorragoak izateko



PLANETAREN ETA BERTAKO BALIABIDEEN ALDE: BIODIBERTSITATEA ETA KLIMA BABESTEA

- Ekosistemetako ura babestea
- Lurzoruak eta basoak desertifikaziotik eta baso-suteetatik babestea
- Industria-abeltzaintzaren eta makrogranjen aurrerapena geldiaraztea
- Energetikoki eraginkorrak eta %100 berriztagarriak diren udalerrriak lortzea



PARTE-HARTZEAREN ETA DEMOKRAZIAREN ALDE: ESPAZIO DEMOKRATIKOAK ETA PARTE- HARTZAILEAK BULTZATZEA

- Udalerrriaren barruan asoziazionismoa bultzatzea
- Udal-erabakietan herritarrek parte hartzeko guneak sortzea
- Tokiko garapen ekonomikorako tresnak garatzea ingurumen-irizpideekin
- Bakearen eta armagabetze nuklearraren alde



PERTSONEN ETA HAIEN ESKUBIDEEN ALDE: UDAL-BALIABIDEAK GIZARTE- ETA INGURUMEN-ONGIZATEAREN ZERBITZURA

- Biztanleria lehortetik, baso-suteetatik eta uholdeetatik babestea
- Ura babestea pertsonentzat
- Mugikortasuna hobetzea, osasungarria izan eta jendearen zerbitzura egon dadin
- Udalerrriko berdeguneen kopurua eta kalitatea handitzea
- Mundu guztiarentzako elikadura osasungarria eta iraunkorra lortzeko aurrera egitea
- Pertsoneri laguntzea energia sortzen, trukutzen eta erabiltzen
- Etxebizitzak eta eraikinak birgaitzea, eta arlo horretan pertsona kalteberei lehentasuna ematea
- Ingurumen-fiskalitatea ezartzea, bizi-kalitatea eta justizia banatzailea hobetzeko
- Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko Next Generation Funtsen erabilera sustatzea eta erraztea



PLANETAREN ETA BERTAKO BALIABIDEEN ALDE: BIODIBERTSITATEA ETA KLIMA BABESTEAK

- Ekosistemetako ura babestea. Espainiako herri batzuek jada ez dute edateko urik. Gainera, elikagaien ekoizpena eta penintsulako ekosistema askoren biziraupena arriskuan daude. Horren arrazoietakoa bat hiri-isurketetatik sortutako kutsadura da. Beraz, indarrean den lege-araudia betetzea eta ura arazteko sistema egokiak abian jartzea udalerrien funtsezko zereginak dira.



Udal-uraren kudeaketan kontrola hobetzea, uraren kontsumoaren eta uraren erabileraren iruzurraren kontrola areagotuz.

- Lurzorua eta basoak desertifikaziotik eta baso-suteetatik babestea. Gure basoek klima-aldaketak larriagotutako bero-boladak eta lehorteak jasaten dituzte, eta sukoiagoak dira. Basoko suteekin desertifikazio-prozesuak eta lurzoru emankorraren galera areagotzen dira. Desertifikazioa ez da desertuekin lotzen, baizik eta su hartzeko joera duten lur lehor degradatuekin, horiek, aldi berean, higadura-prozesuak eta desertifikazioa larriagotzen baitituzte. Gurpil zoro horrek zalantzan jartzen ditu luraren emankortasuna eta baliabide hidrikoak.



Baso-suteetako prebentzio-planak eta tokiko larrialdi-planak betetzea arrisku handiko eremuetan.

- Industria-abeltzaintzaren eta makrogranjen aurrerapena geldiaraztea. Abeltzaintza industrialaren eta makrogranjen kontrako adierazpen instituzionalak garatzea eta onartzea, baliabide naturalak eta, bereziki, ura, babesteko modu gisa, instalazioen neurrigabeko erabilerari dagokionean, nahiz akuiferoak nitratoekin kutsatzeari dagokionez, edota krisi klimatikoari eta amoniakoa edo partikula finak bezalako kutsatzaileak isurtzeari aurre egiteko.



Abeltzaintza intentsiboko instalazioen hirigintza-lizentzien izapidea bertan behera uztea eta udal-ordenantzak onartzea, nitratoei kalte eragin diezaieketen eremuetan mindak isuri ez ditzaten eta horien isurpena mugatze aldera, isurketa-distantziak arautuz; adibidez, hiriguneak, ibilgu hidrikoak eta iturburuak, interes kulturalako lekuak, eta abar, kontuan hartuta.

→ **Energetikoki eraginkorrak eta %100 berriztagarriak diren udalerrriak lortzea. Larrialdi klimatikoak gure udalerrriak eraldatzea eskatzen digu, berotze globala 1,5º C-ra mugatzeko; horretarako, zientziak adierazten du zero emisio garbiak lortu behar ditugula 2040ari begira. Ildo horretan, tokiko administrazioen zeregina ezinbestekoa da eragile aktibo, dinamizatzailer eta eredugarri gisa, erakundeetan, enpresetan eta herritarrengan egiturazko aldaketak aktibatze gaitasuna baitute, deskarbonizazio-plan bat ezartzerakoan, eraginkortasunaren eta aurrezpen energetikoaren bidez, eta energia fosilen eta nuklearren ordez energia berriztagarriak jarrita, herritarrak partaide dituztenak.**



Udal trantsizio energetikoaren plana. Tresna oso eraginkorra da udalerriko CO2 isurpenak gutxitzeko eta deskarbonizazioa errazteko. Udalerrian energiaren eskari osoa gutxienez %50 murrizteko helburuak lortu behar dira, eta energiaren eskariaren %100 iturri berriztagarriekin asetzea 2030 baino lehen. Plan horietan zehaztu behar da zenbateko kuota hornitu daitekeen udal-mugartean kokatutako instalazio berriztagarriekin eta zer zatik beharko lukeen beste lurralde batzuen elkertasuna. Horrez gain, Lurralde Antolamenduaren eta Hiri Plangintzaren aldaketa kontuan hartuko beharko litzateke, beharrezko energia berriztagarriak instalatzeko espazioak gaitzeko eta trantsizio energetikoko plan bat egin edo aldatzeko (halakorik izanez gero). Bi aldaketa horiek herritarrek parte hartuta egin behar dira, urtebeteko epean.



PERTSONEN ETA HAIEN ESKUBIDEEN ALDE: UDALERRIKO BALIABIDEAK GIZARTE- ETA INGURUMEN-ONGIZATEAREN ZERBITZURA

→ **Biztanleria lehortetik, basoko sute handietatik eta uholdeetatik babestea**



Prebentzio-planak. Arrisku handiko eremuetan, lehorte, baso-sute eta uholdeen prebentzio- eta larrialdi-planak diseinatzea, ezartzea eta herritarrei jakinaraztea.

→ **Ura babestea pertsonentzat**



Ur-hornidura birrudalekotzea. Kontratu horiek galdu diren herrietan. Hornidura- eta saneamendu uraren kudeaketako udal-kontratuak berreskuratzea.



Hornidura eta saneamenduko banaketa-sareak hobetzea. Garraiatzen duten uraren ehuneko garrantzitsu bat galtzen jarraitzen dute. Industriak eta etxeak ez daude optimizatuta ura modu eraginkorren erabiltzeko, eta energiarekin gertatu denaren antzeko bilakaera behar dute.



Aurrezteko neurriak. Ahoko ura bermatzeko, ura aurreztera eta zentzuz erabiltzera bideratutako neurriak hartzea, mantentze-lanei eta berraprobetxamenduari dagokienean.

→ Mugikortasuna hobetzea, osasungarria izan eta jendearen zerbitzura egon dadin



Oinezkoentzako ibilbide irisgarriak erraztea; hots, espaloi nahiko zabalak, modu eraginkorren argiztatuak, zuhaitzak dituztenak eta oztoporik gabeak. Irtenbide horiek oinezkoentzako irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzen dituzte, oinezkoen mugikortasuna erraztuz.



Emisio txikiko eremuak. ETEak ezartzea, benetan mugikortasun-modu iraunkorragoak errazten eta autoa ez erabiltzea bultzatzen dutenak. ETEek ezartzeko gutxieneko irizpideak bete behar dituzte, emisioak murrizteko eta espazio publikoa hobetzeko helburuak bete ditzaten. Era berean, Greenpeace-aren ustez, neurri hori baita ere abian jarri behar da 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan.



Bizikleta erabiltzea sustatzea. Garraiobide motordunen aurrean, bizikleta eta oinezko joan-etorriak bultzatu behar dira gure hiriek behar duten mugikortasun-irtenbide gisa. Bizikleta erabiltzeak funtsezko funtzioa du mugikortasunean, ingurumenean eta osasunean; hori dela-eta, ondorengo neurriak proposatzen dira:

- Bizikleta-sare interkonektatuak ezartzea, bizikleta-azpiegitura segurua eta berezia izateko inbertsioak gehituz.
- Aparkaleku seguru eta babestuetarako lekuak egokitzea.
- Bizikleta elektrikoak ez ezik, gainerako ibilgailuak ere kargatzeko guneak prestatzea.
- Bizikleta publikoen mailegu-sistemak ezartzea.
- Bizikletarekiko intermodalitatea bermatzea garraio publikoko geltokietatik.
- Zerga-pizgarriak sustatzea enpresek bizikleten erabilera susta dezaten.
- Bizikletaren erabilera sustatzeko kontzientziazio-kanpainak egitea.



Garraio publikoa indartzea. Lur gaineko garraioa hobetzea, tranbia eta, batez ere, autobusa, erabiltzaile gehiago hartzeko, estaldura eta irisgarritasun handiagoa izateagatik. Hirietara ibilgailuak sartzeko sarrera nagusietan Bus-Vao erreiak prestatzea garraio kolektiboak eta okupazio handiko ibilgailuek soilik erabiltzeko. Semaforo-lehentasuna, kudeaketa-sistemak edo azpiegitura propioak (zirkulazio azkarreko autobusak edo BRT motakoak) ere bultzatzeak kalitatezko zerbitzua eskaintzeko aukera emango luke, kostu eta epe eskuragarriekin. Beti izan behar da kontuan genero-ikuspegia, hiri-mugikortasunean bereizgarri garrantzitsua da-eta.



Garraio publikoaren erabilera sustatu eta emisioak murrizten dituen klima-txartela. Garraiatzeko txartel bakarra ezartzea, garraiobide guztiak erabili ahal izateko. Sistema horri esker, garraio publikoa merkeagoa izango da, txartelak errazago eros ahal izango dira eta, beraz, garraiobide publikoak erakargarriagoak izango dira bidaiarientzat ibilgailu pribatuak baino.

→ Udalerriko berdeguneen kalitatea eta kopurua handitzea



Berdeguneak eta azpiegitura berdeak sortzea eta lehendik daudenak handitzea. Hirietan espaloi itzaltsuak, plazak eta korridore berdeak jartzea, itzalpeko espazio publikoak, irisgarriak direnak, handituz, itzala eta freskura bermatzeko eta bero-uhartearen efektua arintzeko. 3-30-300 araua aplikatuta, hiri askotako tokiko hiri-basoa hobetu eta handituko da, eta, horrela, krisi klimatikoaren aurrean osasuna, ongizatea eta erresilientzia sustatuko dira.



Hurbileko hiria bultzatzea. Herritarren osasuna eta bizi-kalitatea hobetzea, hiriak hiri-plangintza iraunkorraren eta ekitatearen printzipioen arabera diseinatuaz. Hirigintza trinkoaren aldeko apustua egin behar da eta auzo-eskala berreskuratu, erabilerak eta funtzioak nahasiaz, eguneroko premiak (lanera, ikastetxera, erosketak egitera, eta abarrera joatea) asetzeko ibilbide luzeak egiteko behar gutxiago izatearren.

→ Mundu guztiarentzako elikadura osasungarria eta iraunkorra lortzeko aurrera egitea



Haragi-eskaintza murriztea. Udalek haragiaren eta animalietatik eratorritakoen eskaintza murriztu behar dute eta landare-jatorriko, jatorri ekologikoko eta tokiko eta sasoiko elikagaiak gehitu haien titulartasuneko jangeletan, kontratazio publikoaren bitartez, jantokietarako eta ekitaldietarako elikadura-zerbitzuak kontratatzeko prozesuan produktu ekologikoak, bertakoak eta sasoikoak sustatuz.



Milango Itunari atxikitzea¹. Nazioarteko akordio hau 2015ean sinatu zuten. Itunaren helburu nagusia da hiri-eremuetan elikadura-sistema iraunkorrak eta osasungarriak sustatzea, hirietan elikagaien ekoizpenarekin, banaketarekin eta kontsumoarekin zerikusia duten erronkak landuaz ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren aldetik. Mundu osoko 200 hirik baino gehiagok sinatu dute, eta tresna oso baliagarria da udal-iraunkortasuna hobetzeko. Modu ezin hobea da hiriek elikadura osasungarri eta iraunkorrekiko konpromisoa erakutsi eta arlo horretan ekimenak abian jar ditzaten.

→ Pertsoneri laguntzea energia sortzen, trukutzen eta erabiltzen



Energiari buruzko Udal Bulegoa sortzea herritarrei informazioa emateko energia-eraginkortasunaren eta energia berriztagarria instalatzearen inguruan.

Bizilagunak energia berriztagarrien onuren, aurrezpenaren eta energia-eraginkortasunaren inguruan prestatzea eta haiei informazioa ematea, bereziki emakumeen eta pertsona kalteberen beharrei erreparatuta. Hori guztia norbanakoaren kontsumoa nahiz kontsumo kolektiboa sustatzeko, komunitate energetikoak sortzeko nahiz energia-eraginkortasuna hobetzeko, laguntzak ezagutzeko, eta abar.



Komunitate energetikoa eta autokontsumoa sortzea. Udalak, komunitate energetikoen eta autokontsumoaren sustatzailea izateaz gain, horiek sustatu egin behar ditu: baliabideak erraztu (udal-lurzoruak eta -espazioak teknologia berriztagarriak instalatzeko, aretoak jarri, langileak), politika fiskalak onartu, hedapen-politikak onartu, e.a.

→ **Etxebizitzak eta eraikinak birgaitzea, eta arlo horretan pertsona kaltebetei lehentasuna ematea**



Eraikinak deskarbonizatzea². Helburua da 2035ean fosilik gabeko eraikinak %100 izatea. Deskarbonizazioaren barnean sartzen da etxebizitzetan eta eraikinetan integrazteko neurriak masiboki abian jartzea: 1) isolamendua hobetzea; 2) berokuntza, ur beroa eta sukaldeko irtenbideak, hots, aerotermia, biomasa-galdarak (jatorri iraunkorrekoak) edo indukzio-sukaldeak; 3) energia berriztagarriak teiltuetan, (adibidez, panel fotovoltaikoak).



Kalteberatasun-egoeran dauden etxebizitzak birgaitzea³. Etxebizitzak birgaitzeko eta hiri-berroneratzeko bidezko programak bultzatzea, irizpide sozial eta genero-ikuspegiarekin, kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen eskuratzea bermatuz, kontuan izanda hiri- eta landa-dimentsioa edota bestelako ezaugarri batzuk; hala nola, energia-eraginkortasuna, irisgarritasuna, segurtasuna, bizigarritasuna, osasuna, gizarte-kohesioa sustatzea, etxebizitzaren eskuragarritasunean inpaktuak murriztea, eta abar. Urtean gutxienez %20ko helburua lortzea.



Funts espezifikoak eskatzea⁴ eta honako hauen alokairuko etxebizitzak birgaitzeko erabiltzea: pobrezia energetikoan aurkitzen diren familiak edo diru-sarrera txikiak dituztenak bizi diren etxebizitzak, edo diru-sarrera txikiak dituzten etxebizitzaren jabeak eta etxebizitza sozialak.



Kalteberatasun-egoeran dauden familientzako finantzaketa, errenta baxuko familiek erreformak aurrez ordaindu ezin izateagatik eta/edo mailegua itzultzeko gaitasunik ez izateagatik.



Lehentasuneko jarduera-eremuak diagnostikatzea eta identifikatzea, bereziki 1950 eta 1980 urte artean eraikitako etxebizitza sozialaren parkearen gaineko birgaitze orokorreko jarduerak bultzatuz, pobrezia energetiko handienekoak izateagatik.

→ **Udalerrian ingurumen-fiskalitatea ezartzea pertsonen bizi-kalitatea eta justizia banatzailea hobetzeko**



Karga fiskala nabarmen murriztea autokontsumoa fotovoltaikoarekin instalatzen duten edo energia-eraginkortasuneko neurriak (batez ere isolamendua eta bero-ponpak) abian jartzen dituzten **etxebizitzetan eta eraikinetan**, fiskalitatea etxebizitzaren kalifikazio energetikoarekin lotuz. Erreforma fiskal horrekin batera, laguntza ekonomikoak beharko dira behar duten etxeetan hasierako inbertsioa egiteko, inbertsioa lortutako aurrezpen energetikoen bidez berreskuratu ahal izateko formulak landuz.



Hondakinen tasak birformatzea⁵ eta pixkanaka etxeetan eta saltokietan sortutako benetako kopuruarekin lotzea.



Udal-zerga handitzea kutsatzen duten ibilgailuei eta zirkulazioaren gaineko zerga ere handitzea⁶, gaur egun Europako baxuenetakoa baita, garraio publikoaren alde egiteko, beharrezkoa ez den eta gehiago kutsatzen duen banako garraioa erabiltzea alde batera uzteko.



Tasa turistikoa edo ekotasa⁷, beharrezkoa masen turismoaren inpaktu negatiboak konpentsatzeko eta turismo iraunkorra sustatzeko.



Ehizaren eta arrantzaren gaineko udal-zerga, klase dirudunek (luxuzko gastua) egindako jarduera ekonomikoa eta ingurumen-inpaktuko jarduera izateagatik.



Uraren erabileraren gaineko udal-tasa progresiboa eta finalista, aurrezpena, lehenetsuneko erabilerak eta berraprobetxamendua sustatzeko.

→ **Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko Next Generation Funtsen erabilera sustatzea eta erraztea⁸**



Next Generation funtsen bidez eskura daitezkeen laguntza guztien gaineko aholkularitza ematea, horiek bideratzea eta horiei buruzko informazioa ematea.



Udalerrarentzat eskatzea Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko osagai guztien gaineko laguntzak eta diru-laguntzak, trantsizio sozioekologikoa bultzatzen dutenak eta Gobernuaren eta dagokien Autonomia Erkidegoen bidez eskura daitezkeenak; hau da, ETEak sortzeko laguntzak, etxebizitzak birgaitzeko laguntzak, Autokontsumorako laguntzak, e.a. Adibideak⁹.



PARTE-HARTZEAREN ETA DEMOKRAZIAREN ALDE: ESPAZIO DEMOKRATIKOAK ETA PARTE- HARTZAILEAK BULTZATZEA



Udalerriaren barruan asoziazionismoa erraztea. Zentro zibikoak eta tokiko zentroak sortzea, udalerriko auzo-, gazte-, ingurumen- eta kultura-elkarteek beren jarduerak garatzeko leku aproposak izan ditzaten.



Udal-erabakietan herritarrek parte hartzeko espazioak sortzea¹⁰: hiri-diseinu parte-hartzailea, parte hartzeko aurrekontuak, herritarrek parte hartzeko foro sektorialak edo hurrek parte hartzeko guneak.



Tokiko garapen ekonomikorako tresnak garatzea ingurumen-irizpideekin; hala nola, parte hartzeko aurrekontuak, erosketa publikoa, ER kooperatiba energetikoak sustatzea edo tokiko edo eskualdeko moneta birtualak garatzea.



Bakearen eta armagabetze nuklearraren alde¹¹. Arma Nuklearrak Debekatzeari buruzko Tratatu babesteko mozioak sustatzea.

Referencias

1. Milango hiri elikadura-politikako ituna, 2015eko urriak 15
2. Etxe fosil batetik etxe berriztagarri, eraginkor eta eroso batera igarotzeko irtenbideak jasotzen dituzten adibideak etxe eta blokeetarako. <https://es.greenpeace.org/es/en-profundidad/renovables-en-tus-manos-ya/que-puedes-hacer-con-tu-casa/>
3. Etxeak birgaitzearen aldeko ituna, inor atzean utzi gabe. <https://ecodes.org/hacemos/energia-y-personas/rehabilitacion-energetica-de-viviendas/alianza-por-la-rehabilitacion-de-viviendas-sin-deja-a-nadie-atras>
4. ETXEBIZITZAK BIRGAITZEKO LAGUNTZA-PROGRAMA. <https://planderecuperacion.gob.es/como-acceder-a-los-fondos/convocatorias/BDNS/664842/programa-ayuda-rehabilitacion-residencial-y-vvda>
5. Zerga-erreformaren liburu zuriaren proposamena. https://www.ief.es/docs/investigacion/comiteexpertos/LibroBlancoReformaTributaria_2022.pdf
6. Pakete honetan honako hauek sartuko ditugu: trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko udal-zerga (TMIZ), trafikoa arautzearen edo kontrolatzearen gaineko tasak, bide publikoetan aparkatzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoekin. Gainera, zerga-erreformaren liburu zuriak hiri jakin batzuetan pilaketen gaineko udal-zerga bat sortzea proposatzen du.
7. Autonomien eskumena izan arren, udalerriek kudeaketan parte hartzen dute eta horretaz baliatzen dira.
8. Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana. Ohiko galderak. <https://planderecuperacion.gob.es/preguntas>
9. Birmoldaketa-lanak, emisio baxuko eremuak ezartzeko udalerrientzako laguntza-programaren barruan. Europar Batasunak finantzatua, NEXT GENERATIONEU. <https://planderecuperacion.gob.es/como-acceder-a-los-fondos/convocatorias/PLC/11662155/obras-de-remodelacion-de-las-calles-barco-y-eulogio-moya-munoz-plaza-botica-vieja-y-rebolledo-en-el-termino-municipal-de-pinto-dentro-del-programa-de-ayudas-a-municipios-para-la-implantacion-de-zonas-de-bajas-emisiones-y-la-transformacion-digital-y-sostenible-del-transporte-urbano-en-el-marco-del-plan-de-recuperacion-transformacion-y-resiliencia-financiado-por-la-union-europea-next-generation-e>
10. Adibideak:
Hiri-diseinu parte-hartzailea: <https://paisajetransversal.org/2016/04/diseño-colaborativo-de-proyectos-urbanos-mas-alla-de-votarlo-todo/>
Aurrekontu parte-hartzaileak: https://www.redcimas.org/wordpress/wp-content/uploads/2012/08/t_prepar_guia_metodologica.pdf
Herritarrek parte hartzeko foro sektorialak: <https://foroslocales.madrid.es/>
Haurrek parte hartzeko guneak: <https://participacioninfantil.com/>